



IESO - DBHI

Pedro de Atarrabia

**1:1 EREDUAREN EZARPEN
PROJEKTUA**

**SENIDE PARTE HARTZAILEENTZAKO
DOKUMENTUA**

1. PROIEKTUAREN INFORMAZIO OROKORRA

Iaz bezala, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailak **Chromebook ordenagailu eramangarriak** ikasgeletan sartzeko martxan jarri duen proiektuan (*1:1 Eredua; ikasle bat, gailu bat*) Petri Atarrabiakoa DBHI ikastetxeak parte hartzeko konpromisoa hartu du berriz ere. Helburua Bigarren Hezkuntzako lehen maila honetan irakasgaiak lantzeko beste tresna bat izatea da.

DBH1eko ikasleek eramangarri bana (eta irakasleek lauko bat) jasoko dute proiektu hau aurrera eramateko. Ordenagailu hauen bidez Googleren zerbitzu batzuk erabiliko dira (Chrome, Drive...) eta, neurri handi batean, **hodeian** lan egingen da. Hala ere, zenbait arlotan, Wifi konexiorik gabe ere lan egin daiteke eta gero hodeian bateratuko dira lanak.

Ikasleek Chromebook eramangarri bana jasoko dute eskola-materiala mailegu gisa. Hezkuntza Departamentuak noiz hornituko dituen zain gaude.

Chromebook eramangarri hauen erabilera eskolarakoa da, hain zuzen ere, Nafarroako Gobernuaren kontuekin (ikaslea@educacion.navarra.es) besterik ezin dira erabili eta galera edo lapurreta kasuan, **urrunetik ezgaitu egingen dira** (piztu ere ezin izanen da egin). Eskolako ordenagailuak direnez, eta Hezkuntzako Sarearen barruan daudenez, urrunetik kontrolatutako ordenagailuak izanen dira.

2. ARAUTEGI ETA ERABILERA-POLITIKA

CHROMEBOOK-EN JASOTZE ETA ITZULTZEA

1. Ikasleak **Chromebook-a** jasoko du ikasgelan, tutoretza orduan, **kutxa baten barruan**. Kutxa horretan ordenagailuaz gain, karga-gailuak ere jasoko ditu. Kutxa jaso ahal izateko, aldeztu aurretik, tutoreak **ikaslearen baimena sinatuta eta familien onarpenaren baimena sinatuta** izan beharko ditu.
2. Ordenagailuek **etiketa identifikagarria** daramate (bakoitzak berea). Etiketa hauek ordenagailuak zehatz-mehatz identifikatzen dituzte, beraz, **ezin dira ez aldatu ezta kendu inolaz ere**. Kutxan ere etiketa izanen dute
3. Eramangarria **itzuli behar den egunean** ikasleak **ordenagailua eta kargagailua, kutxa barruan, jaso zuen bezala itzuliko ditu**. Tutoreak dena ondo dagoela eta arazorik edota matxurarik ez dela egon ziurtatuko du.

ORDENAGAILU ERAMANGARRIAREN ERABILERA

1. **Maileguan** ikasleari utzitako materiala (ordenagailua eta kargagailua) egunero eta era autonomoan erabiltzeko pentsatuta dago. Eta ez bakarrik irakasleek agintzen duten lanetarako, eskolako bizitzan behar diren jardueretarako ere bai (ikasleentzako iragarkiak, egutegiak, ordutegiak, ikastetxearen oharrak,...).
2. Ikasle bakoitzaren ardura izanen da **eramangarria egunero ikastetxera batera erabat kargatuta ekartzea**. Horretarako, ikasleak hartuko du ardura bere etxean, ikastetxera etorri baino lehenago. Eramangarria ikastetxera ez ekartzea, edo kargatu gabe edo matxuratuta ekartzea orain arte bestelako materiala (koadernoak, testu



liburuak, irakurketa liburuak,...) ekartzen ez zenean bezala kontuan hartuko da. Halako hutsak sarri egiteak arduragabekeriaren ondoriozko falta ekarriko du.

3. **Plagioa** elkarbizitzaren aurkako falta larritzat hartuko da. Edukien trataeran, beste aldetik, informazio iturriak aipatzea beharrezkoa izanen da (grafikoak, pelikulak, musika, testuak,...).
4. Orokorrean, ikasle bakoitzaren ardura izanen da **eramangarria beharrezkoak diren eskolako jardueretara eramatea** (irakasleak aurkakoa esaten ez badu), eta **dagokion tokian gordetzea erabiltzen ez duenean**. Hau dela eta, irakaslea arduraduna bada ere, ikasleek ardura hartu beharko dute aldiro ikasgela ondo bilduta eta jasota egoteko eta noiz eta nola dagoen itxita ziurtatzeko.
5. **Atsedendaldi orduan** ez izango da gelatik chromebook-a atera.
6. Ikasleak ikastetxearen hezkuntzako helburuak lortzeko, ikasketak garatzeko eta ikerkuntza sustatzeko behar diren **baliabide elektronikoak eta informazio iturriak eskuratzeko** modua izanen ditu. Edonola ere, ikastetxeak hezkuntzako helburuak lortzeko ikasleen eskura jartzen dituen baliabide teknologikoak ondo kudeatzearen azken arduraduna da ikaslea.
7. Ikastetxearen baliabide teknologikoak erabiltzeko aukera ez da oinarrizko eskubidea, **ustiatzeko aukera baizik**. Derrigorrezkoa da ikasleek zein familiek erabileraren eta arauen kudeaketa onartzea.
8. **Debekatuta dago edozein legeren aurkako materiala igortzea**. Aipatutako materialen artean ondorengoak sartuko dira:
 - Isilpeko informazioa, copyright duen materiala, material lizuna, mehatxuzko materiala, edo birusak.
 - Chromebook baten konfigurazioa edota datuak edo beste erabiltzaile baten fitxategiak, ikastetxearenak, zuzendaritza taldekoenak, irakasleenak edo administratzaile teknologikoenak aldatzeko baimenik gabeko edozein saiakera elkarbizitzaren aurkako falta larritzat joko da.
9. Badira **egilearen eskubideei, lizentziaren erabakiei eta markei buruzko** bete beharreko zenbait lege. Legea ez ezagutzeak ez du baimentzen ez betetzea, eta zalantza kasuan, badaezpada ere, irakasleari galdetzea da egokiena.
10. **Pribatutasuna eta segurtasuna**. Ondorengo jarraibideak betetzea derrigorrezkoa da:
 - Ikasleak ikastetxearen edozein saio ikaslea@educacion.navarra.es domeinuan besterik ezinen du hasi.
 - Oso garrantzitsua da pasahitza babestea eta beste inori inoiz ez esatea.
 - Ez erabili sare sozialak, chat-ak edo helbide elektronikoa baimenik gabe.
 - Ez zabaldu, erabili edo aldatu norberarenak ez diren fitxategiak.
 - Eremu informatiko erabat segurua ez badago, ez partekatu datu pertsonalak edo pasahitzak inorekin, ezta datu hauek hirugarren pertsonenak izanda ere.
 - Noizbait eduki desegokia edo erasokorra duen webgune batera, konturatu gabe edo nahita, helduz gero, segituan atera beharko da.

- **@educacion.navarra.es sare domeinua Hezkuntzako Sailarena** da eta, ondorioz, indarrean dauden legeen eta erabileraren arauen mende dago.
- 11. Komunikazioak.** Komunikazio telematikoak eta bestelakoak aurrera eramateko ondorengo irizpideak jarraitu behar dira:
- Eskolako eremura murriztu behar dira komunikazioak.
 - Egokia den hizkuntza erabili, beti.
 - Ez partekatu material lizunak, mehatxuzkoak edo desagokiak diren edukiak.
 - Ez bidali, baimenik gabe, beharrezkoak ez diren e-mail ugari, katean edo spam.
 - Ikastetxeko lan eremuaren barruan egindako komunikazio guztiak indarrean dagoen legearen eta ikastetxearen araudiaren mende egonen da.
 - Debekatuta dago bakoitzaren, ikaskideen edota irakasleen pribatutasunari eragiten dion edozein aktibitate desagokia edo iraingarria egiteko.
- 12. Ordenagailua isilpean egonen da beti,** hezkuntza helburuak betetzeko irakasleak aurkakoa esaten ez badu. Irakasleak hala baimenduta, lana egiteko denean entzungailuak erabili ahal izanen dira.

3. FUNTZIONAMENDU ARAUAK ETA ARAZOEN KONPONKETA

ORDENAGAILUAREN OINARRIZKO ARDURA

1. Maileguan utzitako ordenagailuaren erabileraren eta zaintzaren arduraduna ikaslea da. Ordenagailua apurtu edo zuzen funtzionatzen ez badu, tutoreari eman eta HED-ko arduradunari igorriko zaio ahalik eta azkarren, behar den bezala konpon dezaten.
2. Ordenagailua maileguan uzten da. Hori dela eta, galera, lapurreta edo gaizki erabiltzeagatik matxura kasuan ikasleak ordenagailu berri baten kostua ordaindu beharko du.

GAILUAREN BATERIA KARGATZEA

1. Ordenagailua etxean bete behar diren eskolako lanak egiteko beharrezkoa izanen da. Horregatik, egunero, ikasleak etxera eraman eta ondo zaindu beharko du.
2. Egunero, ikastetxera ordenagailuaren bateria erabat kargatuta ekarri beharko da. Goizean erabat kargatuta badago, kargatzeko gailua ikastetxera ekartzea ez da beharrezkoa izanen. Salbuespenetarako, ikastetxeak bateria kargatzeko bestelako tresna izanen du. Salbuespen kasu hauetarako, ikastetxeko programaren arduradunak (edo tutoreek) HED-ko arduradunekin hitz eginen dute.

GAILUAREN OINARRIZKO MANTENTZE-LAN TEKNIKOA

1. Debekatuta dago eramangarriak konpontzera eramatea ikastetxeak baimentzen ez duen edozein tokitara. Ordenagailuak konponketa teknikoa behar badu, tutoreari edo ikastetxeko arduradunari jakinarazi behar zaio, IKT-ko arduradunaren eskuetan jartzeko.

ETXEAN AHAZTUTA EDO KONPONTZEN ARI DEN ORDENAGAILUA: ORDEZKO MAILEGUA

1. Ikasle baten ordenagailua etxean ahaztu bada edo konpontzen ari bada, ikastetxeak ordezkoko mailegua eginen dio ikasleari. Konpontzen ari diren ordenagailuek etxean ahaztu diren ordenagailuen aurrean lehentasuna izanen dute.
2. Ordezko ordenagailua behar duen ikaslea ordenagailu berri horrek izan ditzakeen arazoan arduraduna (eta, bere kasuan, bere konponketarena) izanen da, mailegua bukatu arte.

CHROMEBOOK ETA DAGOKION SISTEMA ERAGILEA

1. Chromebook piztean automatikoki eguneratu egiten da. Ondorioz, uneoro, ordenagailuak sistema eragilearen azken bertsioa izanen du, beste ezer egin beharrik gabe. Ez da beharrezkoa izanen eguneratzeak edo instalazioak kudeatzea.
2. Chromebook-ak malware-ren erasoan aurka eta segurtasunaren arazoak ekiditeko babesa izanen du. Ez du birusetatik babesteko aparteko softwarerik behar. Fitxategiak hodeian gordetzen dira eta, ondorioz, ez da kezkatu beharrik balizko lan galduarengatik (ez da inolako lanik galduko).
3. Erabat debekatuta dago sistema eragilea aldatzea. Oso falta larritzat joko da.

CHROMEBOOK-AREN BABESA ETA ZAINTZA

1. Zaintza orokorrak.

- Ez erabili ordenagailua edarien edota janen ondoan.
- Eskuak garbi daudela erabili, beti.
- Kontuz sartu ordenagailura konektatzen diren gailuak (kableak, USB-ak, txartelak,...). Ez ibili tiraka kableekin.
- Ordenagailuek ezin izanen dute izan identifikatzekoa eta Pedro de Atarrabia ikastetxekoa ez den testurik, irudirik edo pegatinarik. Bestelako markarik edo adierazgarrikerik ere ez zaie eginen.
- Ez estali aireztapen sareta (ez berotzeko).
- Ez utzi ordenagailua babesik gabeko gunetan. Ikasleak, ordenagailua erabiltzen ez duen bitartean, ordenagailuari dagokion toki itxian utziko du.
- *Ikasleak ordenagailua uzten duen tokiaren arduraduna izanen da eta bere ardura ondo ixtea izanen da.*

2. Ordenagailuaren garraioa.

- Ordenagailua kontu handiz garraiatzea oso garrantzitsua da.
- Garraiatzen den bitartean ordenagailua gordetzeko zorroa ondo itxita egonen da.

- Sekula ez da ordenagailua mugitu behar pantailatik tira eginda. Beti beheko aldetik helduta mugitu behar da, pantaila itxita dagoela.
- Komenigarria litzateke, ordenagailua garraiatzeko, egokia den poltsan edo motxilan garraiatzea.
- Sekula ez da ordenagailua gorde edo garraiatu behar elikatzeke kablara lotuta dagoen bitartean.

3. Pantailaren babesa. Pantaila erraz matxuratu daitekeen ordenagailuaren elementua da. Gehiegizko presioak eragin ditzakeen kalteak oso nabariak izan daitezke. Hori dela eta, derrigorrezkoa da ondorengo jarraibideak betetzea:

- Ez eragin indarra tapakiaren gainean ordenagailua itxita dagoenean eta ez gorde, inolaz ere, ordenagailuak tapakia irekita duenean.
- Markatu edo marratu dezakeen elementurekin ez ukitu pantailaren azala, eta pantaila garbitu trapu lehorra eta biguna erabiliz (posiblea balitz, mikrofibraduna). Gainera, oso kontu handiz ibili garbigarri disolbatzaileak ez erabiltzeko garbiketarako.
- Teklatuaren gainean ez utzi ezer tapakia itxi baino lehenago (arkatzak, boligrafoak, diskoak edo bestelako materialak).

4. Zaintzarik gabeko gunetan ahaztutako ordenagailuak

- Sekula ez utzi ordenagailua zaintzarik gabeko gunean. Zaintzarik gabeko gune batean ordenagailua ikusiz gero, esan edozein irakasleri edo arduradunari, ahalik eta azkarren.

4. FIDANTZA

1. Ekipoaren kostua aintzat hartuta, 50 euroko fidantza ordaindu beharko da maileguaren xede den ekipoa jasotzean, eta fidantza horrekin poltsa komun bat sortuko da. Horrela, kurtso hasieran familia bakoitzak eskola matrikula burutzerakoan ematen duen kontu korrontetik pasako zaio ordainketa honen agindua.
2. Ikasturtean zehar ikastetxea uzten bada edo mailegua egin den ikasturtea amaitzen denean, tokatzen den fidantzaren zatia itzuliko da, ikastetxeko edo mailako (gailuak hezkuntza-maila batean baino gehiagotan dituzten ikastetxeen kasuan) poltsa komunean izan diren kostuen zati proportzionala kenduta.

PARTE HARTZEAREN ONESPEN DOKUMENTUA

Erabiltzeko irizpideak onartzea

AITEK-AMEK-LEGEZKO TUTOREEK GAILUAREN ERABILERA-KONPROMISOA ONARTZEA

Nik, (izen-abizenak),

.....(izen-abizenak) ikaslearen aita, ama edo legezko tutorea (urratu egokia ez dena) naizen aldetik, ikasturte honetan taldekoa da PETRI ATARRABIAKOA DBHI ikastetxean, adierazten dut dokumentu honetan deskribatu diren alderdiak ulertu ditudala: "1:1 EREDUAREN EZARPEN PROIEKTUA SENIDE PARTE HARTZAILEENTZAKO DOKUMENTUA". Eta, hartara, bertan deskribatzen diren baldintza guztiak onartzen ditut.

.....(e)n, 20....ko.....aren (e)(a)n.

Sinadura:

IKASLEAK GAILUAREN ERABILERA-KONPROMISOA ONARTZEA

Nik, (izen-abizenak) ikasturte honetan taldekoa naiz, PETRI ATARRABIAKOA DBHI ikastetxean, adierazten dut dokumentu honetan deskribatu diren alderdi guztiak ulertu ditudala: "1:1 EREDUAREN EZARPEN PROIEKTUA SENIDE PARTE HARTZAILEENTZAKO DOKUMENTUA ". Eta, hartara, bertan deskribatzen diren baldintza guztiak onartzen ditut.

.....(e)n, 20....ko.....aren (e)(a)n.

Sinadura: